

NOLA EGITEN  
DUTE LO  
ANIMALIEK?



ANIMALIA GUZTIOK EGITEN OTE DUGU LO?

NOLA EGITEN DUTE LO  
GAINONTZEKO ANIMALIEK?

ETA ZERGATIK?




Zergatik egiten dugu lo animalioek? Eta zertarako? Lo egitea arriskutsua da animalia basatientzat, kanpoko ingurunearekin lotura galtzen baita lo gaudenean. Jakin-mina sortzen digu beharizan misteriotsu horrek, eta, galdera guzti horiei erantzuna topatu nahian, gaur egun hainbat animaliaen loa ezagutzen dugu.

Animalia batzuen kasuan, argi dugu lo egiten dutela: katuek, txakurrek, zaldiek... Baina beste animalia batzuekin zalantza sor dakiguke. Egiten al dute lo arrainek? Edo igelek? Edo armiarmek? Hurrengo orrietan ohartuko zara mota guztietako lo-kuluxkak topatu daitezkeela animalion erreinuan: burmuin erdia lokartuta egiten direnak; zutik, etzanda, edo uretan murgilduta; hegan edo murtxikatzen den bitartean gertatzen direnak; segundo gutxitako lo-kuluxkak, edo sei hilabetekoak...  
Ia animalia espezieak bezainbeste lo egiteko modu daude, eta batzuk benetan dira bitxiak.

Jakin nahi duzu nola egiten duten lo animaliek?

Has gaitezen, bada, eta ez lorik hartu!




# SAGUZARRA



Euskal Herrian ditugun saguzar denek intsektuak jaten dituzte gehienbat, eta intsektuek gauzez egiten dute bizia. Saguzarrak ere, beraz, gauzez irteten dira ezkutalekuetatik otordua egitera, eta egunez egiten dute lo.

Nola irudikatzen duzue saguzar bat lo? Buruz behera zintzilik? Ongi ari zarete!  
Saguzar askoren **deskantsatzeko jarrera buruz beherakoa da**, eta lo ere hala egiten dute. Baina, zergatik?

Hanka motzegiak eta hego pisutsuegiak dituztelako lurretik hegan hasteko!  
Hegaztien hezurak hutsik daude barrutik, gutxiago pisatu dezaten hegan egiterakoan. Saguzarren hezurak, ordea, pisutsuak dira. Beraz, zintzilik egonda, hankak askatu, eta erraz hasten dira hegan.



HEGAZTIA NAIZ BAINA EZ HEGALARIA,  
NIK BAI ITXURA XELEBRE  
ETA MAITAGARRIA

Irudikatu zuen burua jarrera horretan: buruz behera eta behatzetatik sabaira helduta. Oso ezerosoa dirudi, ezta? Buruz behera egoteaz aparte... denbora guztian behatzak estutzen egoten al dira saguzarrak ez erortzeko? Hori nekea!

Saguzarren zorionerako, ez! Animalia hauek tendoi bat dute orkatilan, buruz behera jartzean blokeatu egiten dena, eta posizio horretan egon daitezke luzaroan batere nekatu gabe!




# PINGUINO PAPOZURIA

Pinguino papozuria, hori bai hegazti bitxia! Eta are bitxiagoa da bere lo egiteko modua. **Egunean zehar milaka aldiz geratzen da lo,** eta lau segundoko lo-kuluxkak egiten ditu. Ezin dio loari eutsi, gaixoak!

Pinguinoek jostalariak eta maitagarriak dirudite, baina badakite maltzurak izaten ere. Pinguino papozuria kolonia ikaragarri handietan bizi da Antartikan, eta, kumeak izateko garaia iristen denean, bikote bakoitzak bere habia sortzen du. Eme guztiek batera erruten dute arrautza bana (hegaztiak direlako, noski!).






Baina, koloniako gainontzeko bikoteen artean elkar lagundu beharrean, maltzurkeriatan ibiltzen dira. Askotan elkarri lapurtzen diote, bai habiarako materiala, baita janaria ere, eta liskar asko izaten dituzte.

Beraz, pinguino papozuriak, kumearen zaintzan dabilenean, ez du lasai lo egiteko momenturik.

Ez, behintzat, luzaro.

Horregatik, mikro-kuluxkak egiten ditu!



AIREKO INTSEKTUAK DITUT MAITE,  
NIRE HEGO BELTZ ETA LUZEAK  
BUMERANA DIRUDITE